




Hiru ermuar, Euskal Herriko 1. Ikusentzunezko Rallyan sarituak

Abenduaren 17an Topagunea Euskara Elkarteak eta ...eta kitto! Euskara Elkartek, Eibarko udalaren babesarekin, Euskal Herriko 1. Ikus-entzunezkoen Rallya antolatu zuen. 14 taldek hartu zuten parte eta Markos Gimeno, Alain Dominguez eta Oskar Morales ermuarrek saria jaso zuten. "Poronponpon" lanarekin.

elkarrizketa

**- Zer dela eta erabaki zenu-
ten Euskal Herriko I. Ikus-
entzunezkoen Rallyan
parte hartzea?**

Rallyari buruzko informa-
zioa diptikoen bitartez lortu
genuen eta zinema gustoko
ugenez, aurkeztea erabaki
genuen baina batez ere pro-
batzearen.

**- Nola sortzen duzue hiroko-
tea, zerk lotzen zaituzte
honelako egitasmo batean
parte hartzeko?**

A: Lagunarteko kontua izan
zen eta nahiko inprobisatua.
Markosek bideokamera eska-
tu zidan eta nik ere parte
hartu nahi nuela esan nion.

O: Nik Markosi komentatu
nion ea bazekien Rallya izan-
go zela eta ea nahi zuen
parte hartzea.

M: Nik baietz esan nion
Oskarri eta taldea osatu
behar zenez, aurrera egin
genuen.

**- Zuetariko norbaitek baze-
kien nondik eta nola hasi?**

M: Aste bete lehenago
bildu ginen hirurok nola egin
behar genuen lana erabaki-
tzeko, ordura arte ez baike-
nuen horrelako lanik egin.
Beno Alainek egin zituen
horrelako lan batzuk.

A: Bai, aktore, arte-zuzen-
dari moduan edo script
moduan egin izan dut lana,
beraz, lana idazten hasteko
eta gidoi teknikoak egiteko
ideia batzuk banituen.

**-Astebete lehenago elkartu
eta nola hasten zarete**



Larunbat goizean Eibarren grabatu zituzten planoak.

lanean?

O: Gaia, Rallyaren egun
berean eman ziguten eta
aurretik ez genekien ezer,
baina ideia zaparrada bota-
tzen hasi ginen. Generoa
definitzen saiatu ginen, nahiz
eta gauza gutxi atera.
Gainera grabazio egunean
bilerako apunteak etxean
utzi genituen ahaztuta.

A: Hala ere, egunean ber-
tan bilera hartako hainbat
gauza oso lagungarriak izan
zitzaizkigun.

**-Egunean bertan Eibarrera
heldu, gaia ezagutu eta film
laburrak bete behar zituen
baldintza batzuk ezagutu
zenituzten?**

Bai, "Hamaika ikus-entzu-
teko jaioak gara" zen gaia,
Eibarko leku ezberdinen ize-
nak agertzen ziren zerrenda
eman ziguten, 10 leku ager-
tzen ziren eta lanetan,
gutxienez 3 agertu behar
ziren. Lanek 3 minutuko irau-
pena izan behar zuten.
Goizez 14:00ak arte graba-
tzeko denbora zegoen, ordu
erdi bazkaltzeko eta arratsal-
dean 14:30etatik 19:30etara
muntaia egiteko denbora.
20:00etan lan guztiak eman
eta 20:30etan sari banaketa.

**-Beraz, hiru bi bat... graba-
tzen**

M: Goizeko 9etan
Portaleako kafetegira joan
eta gidioa egiten hasi ginen,
10:00etan etsita geunden, ez
zitzaigun ezer ateratzen,
tontakeriak baino ez geni-
tuen esaten. Baina, momentu
batean aurreko astean bota-
tako ideia batzuk berreskura-

tu genituen.

O: Ideiekin, eszenak anto-
latu eta banatu genituen, oso
ondo egin genuen lan hau.
Eibarko zein leku agertuko
ziren definitu genuen eta
11etan grabatzera atera
ginen.

A: Grabazio denbora luza-
tzeko aukera eman ziguten
eta 15:30ean bukatu genuen
grabazioa. Gero, muntaia
egiteko denboratik kendu
ziguten. Dena den, grabatu-
tako kamaratik ordenagailu-
ra jaitsi genuenean, hiruron
aurpegiek desastrea zela
adierazten zuten. Baina sor-
men prozesuak horrelakoak
izaten dira. Azkenean atera
zen zerbait.

M: Gainera, guk montatze-
ko programa ez genuen eza-
gutzen. Oso oinarritzekoak
ziren pausuak baino ez geni-
tuen ezagutzen: kopia eta
pegatu.

**'lagunarteko kontua
izan zen, inprobisatua'**

ILEAPAINDEGIA
Izaskun
Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
48260 Ermua Bizkaia
Tel. 943.17 66 90
ILEAPAINDEGIA

Solozabal
estankoa

torrekua z/g
Tel/Faxa. 943 17 07 33
fax publikoa

PUB YOMY

**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**

-Zailtasunak zailtasun, merezi zuen?

A: Bai, prozesu guztia oso polita izan zen. Goizeko 8:30etatik arratsaldeko 8:30ak arte. Bestalde, hiru-ron arteko lana oso positiboa izan zen. Gertatu zen guztia, lana hobetzeko izan zen, ideia hobetzeko, grabazioa hobetzeko eta film laburra hobetzeko.

M: Denbora zailtasuna izan zen, denbora eza, baina era berean lana bukatzera behartu gintuen. Oso estresantea ere gertatu zen baina esperientzia oso aberasgarria izan zen. Arratsaldeko 18:00etan montatuta geneukan guztia galdu genuen ordenagailuan arazo bat egon zelako.

O: Bai, oso estresantea izan zen baina mugak jarztea, denbora, iraupena, egun berean dena egitea... oso interesgarria izan zen aldi berean.

-Lana luzeegia geratu zitzaizuen eta laburtu behar izan zenuten azken unean?

A: Bai, 4 minutu t'erdikio filma atera zitzaigun eta 3

minututan utzi behar izan genuen. Eszenak kendu beharrean, moztu egin genituen, eta horrek arintasuna eman zion lanari, lana komikoa geratu zen, hoberako izan zen zalantzarik gabe.

-Zuen lanaren laburpentsu bat egiterik bai?

Pertsonaia nagusia esnatzan denean tanbor hotsak entzuten ditu urrutian. Etxetik irten eta etxe parean tanborra jotzen duen mutila dago. Gero, Eibarko txoko ezberdinetatik pasatu eta beti tanborra jotzen duenarekin egiten du topo. Momentu batean, pertsonaia nagusiari Ikus-entzunezkoen Rallyaren orria ematen diote eta hor ideia bat bururatzan zaio, hainbat gauza gertatzen dira... Azkenean bi pertsonaia berriz ere elkartzeko.

- "Poronponpon" izeneko zuen laburrak, lanik osatuenaren saria jaso zuen. Zuek zer nabarmenduko zenukete lan horretan?

M: Daukan suspensea. Gauzak gertatzen dira eta ez dakizu zertarako gertatzen diren, zein helburu

'estresantea izan arren oso ondo pasa genuen'

duten amaierara arte.

O: Niretzat ideia bera da ona.

A: Niretzat, oso xumea da. Istoria oso sinplea da baina hasiera, korapiloa eta amaiera dauka. Gauzak oso azkar gertatzen dira, baina gertatzen dena oso xumea da, beraz oso zuzena ere.

- Gidoilari, tekniko eta aktore lanak egin behar izan zenituzten. Nola moldatu zinen?

O: Nik batez ere grabazioa egin nuen.

M: Nik tanborra neukan etxean, beraz, ni tanbor jolea izatea erabaki genuen. Horrelako erabakiak momentu hartu genituen.

- 14 lan aurkeztu ziren. Espero zenuten saririk jasotzea?

M: Hasieran beste taldeak ikustean, izugarri zekitela ematen zuen. Gainera, 8-9 pertsonen osotutakoak ziren talde gehienak. Gu hiru baino ez ginen eta nik ez nuen espero saria jasotzerik.

O: Film labur guztien emanaldia ikusten nengoela, aukeraren bat genuela pentsatzen hasi nintzen.

A: Film baten errealtizazioari dagokionez, lanik osatuenetako zela esan daiteke. Aurrean aipatu ditugun hainbat arau betetzen dituelako.

- Epaimahaia osatu zuten zine zuzendariak oso maila altua zegoela aitortu

zuten. Zuek nola ikusi zenuen eta nola baloratzen duzue?

Ez dugu uste hainbesterako izan zenik. Kontua da, egun berean prozesu guztia egin behar izateak ematen diela lanei kalitatea eta maila. Bestalde, zinemagintzarekin zerikusia ez duten beste lan batzuetan ari bagara han egon ginenok, egun batean egindako labur bat entregatzea soilik, asko da.

- Emaitzak ikusita... datorren urtean berriz parte hartzeko prest?

Bai, emaitza baietz esateko modukoa da, gainera gure artean oso ondo moldatu gara eta ondo pasatu dugu.

- Pentsatu duzue beste laburmetrairik egitea? Beste lehiaketaren batean parte hartzeko?

A: Bai, nik idatzita daukat gidoia eta aurrean grabatu nahi dut. Gero lehiaketaren batera aurkeztea pentsatu dut. Bestalde, "Poronponpon" lanaren alde batzuk hobetu (argia, musika...) eta lehiaketaren batera aurkeztea ere hitz egin dugu, baina ez dakigu.

- Ermuan zuen lana ikusteko aukera izango du?

Seguraski Euskal Birusak Rallyan aurkeztu ziren lan guztien emanaldia antolatuko du. Eguna eta ordua zehaztu gabe daude.

Alazne Aiestaran



Markos Gimeno eta Oskar Morales jaso zuten saria.

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA

mari asun



LORADENDA

Diputación, 9 - ERMUA - Tel. 943 174379